

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BASTIDAKO UDALA

#### Udalaren erratz-makina ibilgailu berezia desfektatzea

Udalbatzak, 2021eko maiatzaren 26an egindako ohiko bilkuran, gehiengo osoz erabaki zuen behin betiko onespena ematea udalaren ibilgailu hau efektu ez erabilgarri adierazteari eta erabilera publikotik desfektatzeari: Schimdt Swingo 2000 erratz-makina ibilgailua, E-7762BFX matrikuladuna. Argitaratu egiten da, dagozkion lege ondorioak izan ditzan.

Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioko udalbatzari, hilabeteko epean, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegietan (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legea, 8.1. eta 46. artikulua).

Bastida, 2021eko urriaren 18a

*Alkate-lehendakaria*  
**LAURA PÉREZ BORINAGA**